



Pierre Lhande, (1877-1957)

HAURTZAROA

Pierre Bassagaitz Heguy, Pierre Lhande izenez ezagunagoa, Baionan jaio zen 1877ko uztailaren 9an eta Atharratzen, 1957ko apirilaren 17an, zendu.

Aita, Pierre Bassagaitz, sal-erospen lanetan murgildurik zebilen, antza. Ama, Pauline Heguy, Montevideon jaioa, XIX. mende erdian Zalgizeko Apathia jauregia erosi zuen amerikar aberatsen familiakoa zen. Lehen ezkontzatik aitak bi alaba zituen, Balentine eta Estefania, eta emaztea hil zitzaionean honen ahizparekin ezkondu zen berriro, ohikoa zen legea, eta hiru seme izan zituzten: Petiri, Joanes eta Marzel.

1



2

Petirik lehen eskolak San Bernat ikastegian burutu zituen, behin Ohorezko Gurutzea ere lortu zuelarik, eta Baionako Katedralean tiple bezala aritu zen, baina zortzi urte zituelarik, aita hil egin baitzitzaion, ama alarguna bere seme-alabekin Zuberoako partera, eta zehazkiago esatearren, Zalgizeko herrian kokaturiko Aphatia jauregira itzuliko da gurasoengana.

Amañiren izena Graxi Lhande zen, eta euskaraz Jainkoari otoitz egiten

beraxek erakutsi zionez, harengandik hartuko zuen noski, gerora Petirik erabiliko zuen eta ospetsu egingen zuen Lhande deitura.

Zalgizeko herri-eskolan ibili ondoren, Mauleko College de Saint-François izeneko ikastetxean egin zituen bigarren mailako ikaskintzak, Pouret jaunaren zuzendaritzapean, eta badirudi oso gazterik nabari zitzaiola poesiarako jaidura.



Aphatia jauregia.



SEMINARIOA

Hamasei urtetan, 1893ko urrian, Baionako Seminario Handian sarturik Filosofia ikasten hasi zen. Eta garaian ziren eztabaidetan, hau da, tradiziozale eta modernisten arteko gorabeheretan, azken hauen alde parte hartu zuen, geroago *Le petit prêtre* eleberrian kontatu zuen bezala.

Bertsoak idazten jarraiki zuen eta François Coppée-ri igortzen, honek 1895ean gutun batean, *mon cher poète* —ene poeta maitea— deitu zuelarik. Charles Bordes musikariarekin ere harremanak izaten zituen eta bere musika-lanetarako koplak eskatzen zizkion.

1898ko irailean soldaduskara deitu zuten eta Baionako oinezkoen 49. errejimenduan iragan zuen epe bat euskaldun gazteei frantsesa irakatsiz.



Gaxte-garaiko antzirudiak

Baina ezgaitzat jo zuten militarrek —gogorregi egin baitzitzaizkion Montbrun-go tiroak eta Saint-Léon-go maniobrak— eta seminariora itzuli zen, Apatian atsedenaldira bat eman ondoren, 1899ko apirilean.

Bertako buruzagiek ezin onar baitzezaketen haren poesiarako berotasun gehiegizkoa eta Teologiarako, aldiz, gutxizkoa, hogeita bi urte zituela bidali egin zuten. Epeltzat jo, nonbait.

Zalgizerako bidean trenean etsiturik zihoala, jesuita batekin topo egin eta, elkarrizketa luze baten ondoren, lagundikoa izateko erabakia hartu zuen. Denboraldi bat Tarn-et-Garonne aldeko Montbeton-go erretiro-etxe batean eman ondoan, Rodez-eko fraidegaitegian sartu zen.

Lagundia erbesteratu zutenean Beljikan lehorreratu zen Heeren-Elderen-en Limbourg-eko probintzian eta bertan, 1902ko irailaren zortzian, Ama Birjinaren sorkunde-egunean, eman zituen lehenbiziko botuak.


1903ko udazkenean Ingalaterrako bidea hartu zuen eta hamaika hilabetez Jersey uhartean bizi izan zen eta irakasle-multzo ederra ezagutu zuen. Londres bisitatzeko aukera izan zuen, baita British

Museum-ean ziren euskal liburuak ikuskatzeko ere.

Nobiziatua Saint Heeren-en eta gaztealdia Jersey-n igaro ondoren Holandara iragan zen. Brabanteko lurraldeetan zegoen Germet herrian bi urte iragan zituen Filosofia-ikasketak sakonduz, baina poesia utzi gabe. Garai honetan hasi zen zenbait aldizkaritan idazten —*Le Messenger du Coeur de Jésus, Blanche de Castille, Grand Almanach Catholique* eta *L'Almanach du Pèlerin*—, baita Baionan euskaraz eta frantsesez argitaratzen zen *Eskualduna* astekarian ere.

Baionan soldaduei frantsesa irakasten zien eran, Cadiz-eko probintzian dagoen Puerto Santa Maria-ko ikastetxean ere izan zen, 1905ean, frantsesa irakasten. Inguru honetan dago kokaturik, hain zuzen, *Luis* eleberria, argitaratu zuen lehenengoa.

1907. urtean Beljikara itzuliko da, Enghien-go Seminario Handira, Teologia-ikasketa sakonak bertan burutzera eta Tolosan, Frantziako Toulouse-n, apeztu zen 1910eko abuztuaren 28an, hogeita hamahiru urte zituela.



PREDIKARI MUNDUAN ZEHAR

Lhande berehala nabarmendu zen bere ahots ezti eta buru argiaz sermoilari gisara eta leku guztietatik deitzen zuten orotan entzun nahi baitzuten. Honela, 1913an Liège-ko elizan Loiolako Ignazioz eginiko gorazarrea, gaztelaniara itzuli eta *Euskalerraren Alde* aldizkarian agertu zen, Ark-eko Joanaz eta Santo Tomas-
-ez egindakoak ere argitaratu egin zirelarik.

Zalgizeko elizan hitzaldi zirrargarria egin omen zuen —hala zioten entzun zutenek— bere ikaskide, herrikide eta adiskide handi izandako Jean Pierre Elichiry Oragarreko apaizaren hileta-
-elizkizunetan, 1914eko apirilaren 25ean.

Lehen Mundu-Gerla piztu zenean “Uskaldün güdükariéntako güthünak”

plazaratu zuen, alegia, euskal gudariéntzat idazkitxo bat, *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratu zena (1914). Idazki horretan agertzen duenaren arabera,



hegoaldeko euskaldunek, berdin Frantzia edo Alemania aldekoak izan, benetan “bere odolezko anaien bihotzminak berenak balira bezala” hartzen zituzten.

1915ko Oiartzungo euskal jaietan, elizan eman zuen “Gure orma zarra” hitzaldia, *horma*, noski, *euskara* zen.

Bai, euskaldun maiteak, ama euskara da Euskalerriko lurren inguruan Jaungoikuak jaso zuen arri-orma: ark gordetzen gaitu atzerrietatik datorzkigun gaitz guztietatik (...) euskara da goi ta argi diran gauzak adirazteko izkuntza egokiena...

Zuberoan barrena ere arituko da hango apezek deiturik sermoilari; Urdiñarben, Muskildin edota Omize-
-gañian, non hileta-elizkizun batean goresmen-solas hau egin zuen: “Jean Curutchet apheza” (*Eskualduna*, 1917-VII-5).

1917ko abuztu bukaeran gerrarako erreperatua izan zen, ezgai armen zerbitzurako baina gai laguntza-
-zerbitzuetarako aurkitu baitzuten. Lehenik Marseillera bidaliko dute eta gero Tarente-n zegoen frantses eritetxera. Hain zuzen, hor erizain emandako denboragatik Italiako gobernuak gerra-merituzko domina oparitu zion. Gerran aritu eta hil ziren beste hiru apezek liburu mardula idatzi zuen: *Trois prêtres soldats*.

Lieutenant Abbé Charo; Lieutenant de Dara, S.J.: Joseph Cascua, S.J.
(Paris, 1918).

Baionako apezpikua François Marie Gieure-k eskaturik gutun bat itzuli eta bere erara moldatu zuen, baita argitara eman ere 1919an.

Parisera deitu zuen Gerlier kalonjeak 1925ean eta hiriko inguru xume eta pobreenetan, gerriko beltz eta gerriko gorri deituetan, lan egingen du. Panhard beribil zahar batean dabil batetik bestera etengabe, misio-lur haietan pionero gisa; 52 kaperatxo, 90 areto, 59 parroki etxe, 12 eskola, 8 haurtzaindegi eraiki eta bertze hamaika ekintza burutu zituen. Kristau-mezua *Radio Paris* eta *Radio Luxemburgo*-ren medioz hedatzen zuen eta arrakasta

handia zeukan ahots *irratigenikoz* onera eramaten zituen esperientzien berri emanez.

Istorio hauek liburutxo zenbaitetan bildu zituen; hala nola, *L'Évangile par-dessus les*

toits (1927), *Le Bon pasteur* (1928), *Pater* (1930)... 1928an Montyon baruak frantses ekonomista eta filantropoak sortutako saria eman zioten *La Croix sur les fortifs* liburuagatik. Sari hori 1780an hasi zen ematen gizadiaren zorionerako idatzitako libururik baliosenari.

Hego Ameriketara barrena ere ibili zen hitzaldiak frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz ematen —batez ere, Frantziako irudia ederretsiz.

Hurrengo urtean sotana txuria jantzi eta kolonietako kaskoa buruan Afrikako lurraldeetan, Madagascarko uhartean hain zuzen (1932), ibili zen.

1933 urte bukaeran Indiarantz abiatu zen. Bombay-n San Frantzisko Xabier euskal misiolariaren hilobia ireki zutenean, sailduaren oinak musukatzeko aukera izan zuen. Bidaia eta zeremonia hauek Van Spreeken jesuitak filmatu zituen eta *L'Inde sacrée* (1934) tituluaz aurkeztu. Urte honetan ere Vachet apezak Lhanderen *Mon Petit Prêtre* honen haurtzaroko eta gaztaroko gorabeherak, dudadak eta zalantzak, bizitza nobelatua— pantailaratu zuen *Le Mains Liées* izenpean.



François Marie Gieure Baionako apezpikuak eskatuta egin zuen itzulpenlan hau.

Frantziara itzuliko da 1934. urtean eta Lille-n bi orduko hitzaldia egitea suertatu zitzaion, ondoren, buruko gaitz batek lazki kolpatu zuen, ia deusetarako gai ez zegoela utziz. Eri delarik Pabera erretiratzea eskatuko du.

Halere, Pariseko *Études* hilabetekarian noizbehinka idazten jarraitzen du, eta gerra zibila Espainian eta euskaldunen artean sortzen denean 1936an, honakoxea idazten du: "nere gogoa litzateke lehenbailehen gure euskal probintzia maiteak bakea eta batasuna lor dezaten."

Lhande hasieran, beste buru eskuindar zenbaiten moduan, ez zen

batere harrera on emanzale euskal exiliatuekiko gorriekin bat egin zutenez, baina denboraren poderioan, jokaera aldatu egin zuen eta laguntza eskaini zien; *Elai-Elai*-ko haurrak bere ardurapean hartuz, Verdier kardenalari aurkeztuz eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanak edukiz.

Halere, buruko eritasunak hartu ondotik ez da jada inoiz lehengo izanen, karrosaño batean higitzera behartuta izanen baita. Azken finean, hainbeste lurraldetan barrena ibili ondoren, Atharratzeko Saint-Antoine-ren seroren zahar-etxera erretiratzea lortuko du, baita bere Zuberoa maitean, mendi, zuhaitz eta ibaien artean hiltzea ere, gorpua Zalgizeko kanposantuan lurperatu zuten.



POETA

Gazte-gazterik, hamalau bat urte zituela, hasitako ohiturari luzaro eutsi zion Lhandek, batipat frantses-poemak idatziz.

1901etik 1911ra idatzi zituen bertsoak Charles de Launet-ek editatu zituen Donostian, 1977an, *Choix de Poèmes* (Poema hautaketa) titulupean. Gehienek erlijioa dute gai eta barreiaturik zeuden aldizkari ezberdinetan (*Eskualduna*, *Le Courier des Familles*, *Le Patriote des Pyrénées*, eta *Études-en "Nahi-Preherel"* eta "Petit Pierre" izenordeez sinaturik)

François Coppée, herri xehearen bizimodua islatu nahi zuen poetaren adiskidea eta jarraitzailea zen Lhande. De Launet-ek dioskunez, bere poemak lirika tradizionalaren barne kokatu behar dira, beraiengan natura bero, benetako bihotza eta izpiritu dotorea batera ediren daitezkelarik.

Ez litzateke harrigarritzat jo behar Lhanderen poesiarako jaidura goiztiar hau kontuan hartzen badugu nortzuk bizi izan ziren, XVII-XVIII. mendeetan, bere haurtzaro eta gaztaroko jauregian: Zalgizeko Bertrand, Erregeren kontseilari Gorte gehienez

eta garaiko euskal poetarik hoberena —Oihenarten hitzetan "eskaldun poeta/burura behar duk erramu-boneta"—, eta Uharteko azken markesa, *Maitia nun zira* kantu zirrargarria ondu zuena.



Pierre Lhanderen *Poema hautaketa*.

ELEBERRIGILEA

Lhandek 1912an eman zuen moldiztegira *Luis*, frantsesez idatzitako lehen eleberria. Hau Andaluzian kokatzen da eta bertako ohiturak ditu gai. Nola ama batek nahas eta gal dezakeen bere semea azaltzen digu. 1913an, alemanera itzultzen hasi zirenean, hizkuntza hau ikasten hasi zen.

Urte bat geroago, 1914ean hain zuzen, Hondarribin mamituriko eleberria, *Mirentchu*, argitaratu zuen. Arrakasta handia izango zuen berriro alemanera itzuli baitzuten, baita gaztelaniara ere, kasu honetan J. de Mujika izan zen itzultzailea eta lehenik zati bat *Euskalerrriaren alde*-n agertu zen eta geroago osorik *Pizkundi*-n (1917).

Lhandek *Jesusen Biotzaren Deya*-n ere idazten zuen. Aldizkari horren "Liburu Berriak" sailean honelaxe aurkeztu zuten *Mirentchu*:



Mirentchu.

Euskaldunen oitura on ederrak dagerzkigu bertan argi ta biziak. Irakurgai polit au euskaldun batek, Jesus´en lagundiko A. Pierre Lhande´k prantzeraz idatsi zuan eta, diotenez, beste euskaldun batek erderara biurtu du. Dana dala, erderaz idatzita ere euskel maitetzalle guztientzat atsegingarria da. (1917: 223)

Halako arrakasta izan zuen non Azkona anaiek, zertxobait moldaturik, zinera ekarri zuten Guridiren musika eta guzti. Filmeari *El Mayorazgo de Basterretxe* (1928) titulua jarri zioten eta berriki (1992) Eusko Jaurlaritzak etxerako bideo moduan plazaratu du.

10



El Mayorazgo de Basterretxe filmaren irudiak.




1918an *Mon Petit Prêtre. Récit d'une Mère* plazaratuko du. Gaztelaniara beste titulu honekin itzuli zen: *Una Ilusión y dos vidas*, (Madrid, 1935). Hogeita hamar zentimotan saltzen ziren *Lecturas para todos* bildumako bi aletan.

Beste zenbait eleberri eta ipuin ere idatzi zituen frantsesez: *Les Mouettes* (1920), *La Ferronnerie d'Ameznabar* (1921), *Les lauriers coupés* (1924), *Bilbilis* (1926) —hau gaztelaniara eta alemanera itzulia— eta *Le Moulin d'Hernani* (1936), aski arrakastatsuak denak, dirudienez.



Bada euskaraz idatzi zuen eleberri bat: *Yolanda* (1921). Eleberri hori frantsesez eta holandesez ere argitaratu zen.

Galde dezakegu *Yolanda* eleberria *La Ferronnerie d'Ameznabar*-en itzulpen soila den ala ez, baina dudarik gabe, aitortu beharrean gaude, bi sorketa ezberdin lortu zituela gai beraren inguruan, bata euskaraz eta frantsesez bestea.

11




12



SAIOLARIA, LITERATUR KRITIKARIA ETA EDIZIO PARATZAILEA

Atzerrian zegoelarik ez zuen euskal mundua ahantzi; *Eskualduna*-n “Autour d’un foyer estable” artikulua plazaratu zuen eta handik lasterrera, 1908an, Parisen *Autour d’un foyer basque. Récits et idées* —Euskal sutondoa. Kontakizun eta gogoetak.— Liburu horrek anitz iruzkin sortu zituen, eta 1925ean birmoldatuko zuen eta *Le Pays Basque à vol d’oiseau* —Euskal Herria txorien hegatsetik— titulupean agertu. Etnologia aldetiko ikuspegi orokor gisara har daiteke, bertan euskal herri-poesiaz, honakoxea dio: psikologiaren ikuspuntutik, duda gabe, poesia benetan herri baten *l’expression idealiste*, hots, adierazpen idealista dela.

Parisen 1856an jesuitek sorturiko *Études* aldizkarian erredaktore-lanak



burutu zituen urte anitzez. 1909an “L’âme basque. La hantisse de la mer” —Euskal arima. Itxasoaren gogoan-beharra— idatzi zuen bertan.

1910ean plazaratuko du jada *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en ematen ari zen lana, *L’émigration basque. Histoire, économie, psychologie...*, euskal emigratioari buruzko liburu benetan eder, sakon eta eztabaidagarria, Argentinako Errepublikan presidente izandako Karlos Pellegriniren aitzin-solasarekin. Gaztelaniara Ignazio Basurkok itzuli zuen eta 1971n *Auñamendi Bilduman* berrargitaratu zen.

Messenger du Coeur de Jésus aldizkarian bere poetika kontsidera dezakegun lantxo bat argitara ematen du 1910ean: “Les Artistes et les Écrivains Catholiques”. Hor dioenez, idazle katolikoa beti egoten da “bataila zelaian”, katolizismoa idazle onen premian dagoelako, baita artista eta poeta onen beharrean ere. Artea,

13

berez, idealismoaren eskola handi bat da, eta gizonaren izaera bere ekintzetan fidelki errespetatzen duenean, arima eta Jainkoaren berezko arartekoa dela esan daiteke.



Hernaniko josulagunen ikastetxeko umeak hondartzan.

Hurrengo urteak (1911-1912) Euskal Herrian iraganen ditu, lehenik Hondarribiko ikastetxean eta ondoren Hernanikoan. Epe honetan, irakaskuntzako esperientzien berri *Jeneusse* —Gaztedia— (Paris, 1912) izeneko liburuan plazaratu zituen. Gaztaroa hiru partetan banatu zuen: aro bera (*l'âge tendre*), aro kritikoa (*l'âge critique*) eta gizaroa (*l'âge viril*).

Eleberrigile ez ezik literatur kritikari ere ageriko zaigu. *RIEV*-en eta *Études* aldizkarietan plazaratu zituen bere iritziak, eta eztabaida sortu ere bai, adibidez, Baroja eta Unamunorekin.

“Chronique de littérature basque” eta “Bulletin de littérature basque”

izeneko lanetan (*RIEV*, 1919) Eleizalderen *Landibar*, Azkueren *Ardi galdua*, Kanpionen *Euskariana*, eta Barojaren *Momentum catastrophicum* lanak iruzkindu zituen.

“Agirre irakurgaikiña” lanean (*Itzaldiak*, 1923) euskal eleberria eta prezeski Txomin Agirreren *Auñamendiko Lorea* (1897), *Kresala* (1906), eta *Garoa* (1912) hartzen ditu mintzagai. Bigarrenaren arrakastaren zergatia azaltzen saiatzen da: gai aldetik xumea da eta naturlegoak onartzeko moduko esamolde ugari landu du. Historia-liburuak utzi, hartu aterkia eta kalera, kaira joaten da idazlea egunoroko bizitza eta hizkera jasotzera. Gero koadernoetatik liburura, ukitu gutxirekin, igarotzen da istorioa.



Euskara eta euskal literatura bere osotasunean hartzen duelarik honakoxea dio; alegia, hizkuntza guztiak daudela loturik estu-estu adierazten duten bizitzarekin eta honen adierazle direla. Bizitzak egiten duela, beraz, hizkuntza, eta euskal bizitza batipat xume eta apala denez, euskarak, nahita nahiez eta halabeharrez, horixe behar duela, batipat, adierazi, ezin zaizkiolarik eskatu bere bizieran ez diren gogoeta eta sentimenduak. Euskara dotoreagoa eta sotilagoa nahi bada euskaldunak berak beharko du halakoa izan, estiloa hizkuntzari gizakiak ematen baitio.


Literaturaz aparte, politika-gaiak ere astindu zituen eta 1919an idatzi eta argitaratu zituen saio batzuek eztabaida franko sortu zuten: *Notre Soeur latine: L'Espagne, Études politiques et morales* —Gure ahizpa latinoak, Espainia. Politika eta Moral Ikerketak—. Hitzaurrean dioenaren arabera, Frantzia eta Espainia arteko ulertezinak gainditu asmoz eta elkar batzeko esperantzan egin zuen lan hori.

Tamalez, bere borondate on hori ez zen oso ongi ikusia izan —Urkijori idatzi gutunean zioen bezala (1919-I-10)—. Alde batetik, editorearen aginduz ezarritako tituluak abertzaleak asaldatuko zituen eta Ziburuko Iñaziok astindu egingo omen zuen, eta ez

arrazoirik gabe. Beste aldetik, irrigarriago zena, Madridetik iritsi agindu batez Espainiatik erbesteratua izan zen, Euskal Probintziak Frantziaratu nahian zebilela aitzaki gisara hartuz.

Toulouse-ko Unibertsitatean euskal literatura irakasten zuen Letretako Fakultatean hara jende anitz erakarritz. Urkijo adiskideari idatzi gutun batean (1921-I-20) esaten zionaren arabera, hiperkritiko bilakatu bide zen, poeta ia ezagutu ezin zitekeelarik, eta ia suntsitzailea iruditzen zitzaion. Bertako kapitularik nagusienetakoan Pierre Topet Etxahun koblakari zuberotarra hartu zuen gaitzat: “Le Villon Basque: Etxahoun (1786-1862) avec audition de chants totalement inédits”.

Mende laurdena geroago, 1946an hain zuzen, Eskualzaleen-Biltzarrak editaturik Etxahunen kanten edizioa plazara eman zuen Jean Larrasquet apezarekin batera. Aitzin-solasean esaten digunez,




1922ko oporraldietan mando baten gainean ibili zen, Gaztelondo, Jauregibe-Ibarra eta Maltako haranetan laborariei galdezka eta haren emaitzen aztarnen bila.

Euskal Herrian zebilelarik, 1923an, buruzagiek Toulousera bidaliko dute arrazoi hauek tarteko: euskal gaztedia Marokoko gerrara joan ez zedin ahaleginak egin omen zituelako, *Nôtre Soeur latine, l'Espagne* delakoa argitara eman zuelako eta abertzaleen mitinik gehiago ez burutzeko.

16

EUSKALTZAIN ETA HIZTEGIGILE




Urkijori bidalitako gutunetakoak.

Julio Urkijo *Revista Internacional de Estudios Vascos*-eko zuzendariarekin 1907 urtean hasten da luzaro, bederen 1929a arte, izan zuen gutun gurutzaketa, bai frantsesez, bai eta gaztelaniaz. Batzuetan "Pedro Lhande", eta bestetan "Appatiako primia" edo "P. de Salguis" sinatuta bidaltzen dizkio gutunak.

Beste gauza anitzen artean, Urkijo errefrau biltzaile amorratuari argitzen dizkio hainbat puntu Zalgizeko Bertrandek bildutako eta idatzitako atsotitzen hizkeraz. Adibidez, *Dugunian bon bon, eztugunian egon*, errefrauari eranskin hauxe egiten dio: "...mi tía lo decía cuando se había agotado el cartucho de dulces que nos traía cuando venía á comer a mi casa de Sauguis..." Eta zuzendu behar duela *Zalgizeko jaun barua oroz eta gorritz bezi peluka xuria bizkarretik xilintxan testua ...oro zeta gorritz... jarriz*.

Julio Urkijori (1913-XI-25) idatzitako gutunean hiztegi-kontuez arituko zaio, esanez, euskalki guztien hiztegi osoa egin nahiz aitzindariak arinegi ibili izan nahi zutela eta aldeaz aurretik beste aitzineko lanak burutu behar zirela, horien artean hurbilketa ikerketak, alegia, hiztegi osoak baina euskalkiz



Zalgizeren atsotitzei egindako oharrak.

euskalki. Lhandek berak espero zuen zubereraren hiztegi osoa burutzea.

1918an Oñatin ospaturiko I. Euskal Ikasketen Biltzarrean parte hartu zuen; hala nola, Euskaltzaindiaren sorreran. Horrela 1919ko irailaren 21ean Euskaltzaindiko kide izendatu zuten Donostian.

Hilabete bat beranduago Pierre Broussain-ek, Iparraldeko mediku euskaltzale ospetsuak, honelaxe idatzi zion gutun batean:

(...) gero eta bozkarioagotzen ari naiz ahaleginak egin ditudalako Akademiako zuberotar errepresentanta gisara hautatua izan zaitezten. Abertzaleen mundua ongi ezagutzen duzu, eta bai zure nortasunaren eztiak, bai halaber zure malgutasunak —ez naiz mintzatuko zubereraz duzun jakituriaz— lagunduko baitute Azkueren suak eta Olabideren hersturak eztabaidak gehiegi gaixto ez ditzaten. (Piarres Charriton, *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*, CNRS, Paris, 1985, 191)

Horrela bada, bera izanen da euskaltzain oso, zubererako urgazle beste honako hauek hautatu zituztelarik: Jean Baptiste Constantin irakasle ohia, Felix Larrieu medikua eta Justin de Menditte eta Jean Urruztoi apezak. *Euskera*-ren lehen alea argitaratzeko beraxe hautatu zuten paratzaile, eta frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz

hirurak oso ongi menderatzen baitzituen idatzitako hitzaurrean honakoxea zioen besteren artean:

Gure Euskaltzaindi au jaio zan egunetik laster asko asi ziran baltsa berria zirikatzen minki eta saminki (...) Oldarraldi orien aurrean, Euskaltzaindia ixil ta geldi egon zan, bein-bein asi zuan sailari jarraikiz. Etsaiak garaitzeko, bururatuko zukean lana itzak baño izkilu obeagokoa izango zala bazirudion. Alperrak edo argalak giñala ta gañerako itz ernariak esaten utzi, ta bakartasunean bere gai gogorra aurreratu zuan. (*Euskaltzaindia ren lan eta ageriak*. Donostia, 1920, 1. go urtea, 1. go zenbakia)


Mila bederatzehun eta hogeita seiak hasi zuen *Dictionnaire basque-français* tituluko hiztegia plazaratzen Parisen. Lehen orrian zioen bezala, lapurtera, behe-nafarrera eta zubereran oinarrituta zegoen; hala nola, Azkuek moldiztegitatu zuen *Diccionario vasco-español-francés* izenekoan, eta oraindik argitaratzeaz zeuden eta dauden —Harriet, Hiribarren eta Foix-en hiztegi eskuizkribatueta.

Bederatzi liburuki izan zituen hiztegiak eta berak lehenengo hiru aleak soilik plazaratu zituen. Hurrengo

seiak Piarres Lafitteren eta Philippe Aranarten esku gelditu ziren, honela Tolosan 1926an argitaratzen hasi zen lan ederra 1938an amaiturik gelditu zen, Gabriel Beauchesne-ren moldiztegiaren.

Prospectus-ean esaten zen bezala mila eta berrehun orrialde inguru ditu —zehazki, 1119— eta hitzak bi zutabetan ematen ditu euskalkia adieraziz, erreferentzia bibliografikoa eta tokikoa ere badute, etorki erromanikoa dutenean adierazia, eta plantxa irudikatu mordo bat.

19



Hiztegiaren azala, iragarkia eta barneko erri bat irudiz hornitua.

Urkijoren omenaldian ere parte hartu zuen "Incognita" (1949) lantxoarekin, non polemikako galez at, bere amona Graxiren ohitura zenbait oroitzen dituen.

Eta esan bezala, 1957ko apirilaren 17an, laurogei urte zituelarik, Atharratzeko San Antonio Eritetxeko serora frantziskotarrenean hil zen Pierre Lhande, jesuita, euskaltzaina, irakaslea, poeta, eleberrigile, hiztegitigile, predikari eta polemista sutsua.

20



Euskaltzaineekin. Ezkeretik eskuinera: S. Mujika, I. Eleizalde, R.M. Azkue, J. Urkijo, P. Lhande eta Tx. Agirre.